



Irudia: Unai Fernandez de Betoño

Etxebizitza krisian...

...eta krisian etxebizitza. Adiera bikoitzetik aztertu nahi dugu etxebizitzaren esparru zabal eta konplexua: hilabeteotan pairatzen ari garen krisi ekonomiko ustez iragankorraren ikuspuntutik, baita ohiko etxebizitza-ereduaren beraren krisi iraunkorragoaren ikuspegitik ere. Biak ala biak sekulako eragina edukitzen ari dira etxebizitzaren alorrean, diseinuaren, arkitekturaren eta hirigintzaren eskala ezberdinetan.

Etxebizitzaren prezioak Euskal Herrian bizi izandako gorakada 1997 eta 2007 urteen bitartean neurritz kanpokoak izan zen, batez ere Hegoaldean. Argi dago etxebizitzaren sektoreak burtsako inbertitzaile anitz erakarri zituela, hipoteken interes-tasa baxuek erakarrita. Udalak eta autonomia-erkidegoak ere lurzoruairen prezio altuarekin bereziki eta eraikuntza-martxa frenetikoarekin orokorki finantzatu ziren hein handi batean. Baina zer gertatuko da orain, garai latzak datozen honetan?

Etxebizitza-ereduari dagokionez, badirudi ingurumenaren paradigma berriak diskurtso osoa monopolizatu duela, tipologiaren funtsezko gaia erabat alboratuz. Familia-eredu berrietara moldatutako etxe-eredu berrien aldarrikapena arras lausotu da azken urteotan, arazoa konpondu ez bada ere.

Zaila izanagatik alternatiben bila arituko gara. Kooperatibismoa eta erredukzionismoa sarritan aipatuak izan dira sendabide gisa; alegia, etxebizitza-sustatzaileren mozkinak ekuaziotik ezabatzea haien arriskuak partekatuz, eta behar-beharrezkoa den azalera duten etxebizitzak baino ez eraikitzea. Jarraibide horietaz mintzatuko gara, jakina, ñabardura batzuk zehaztuz, hala ere: alde batetik, kooperatibismoak, autoeraikuntzak eta etxebizitzaren babes publikoak alternatiba egokia osatu dezakete, baldin eta etxeak espekulazio-ondasun izateari uzten badio; eta, bestalde, ohiko etxebizitza-ereduaren azaleraren doitzea zentzuduna izango da, baldin eta horrekin ez bada areagotzen eraikitzen diren etxe berrien kopurua.

Bistan da etxebizitzaren alorrean oinordetzan hartu ditugun hainbat automatismo alde batera uzteko garaiak datozela.

